



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

102. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Uztaila-Abuztua



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia 2016-rekiko konpromisoa berretsi du**

Gipuzkoako Foru Aldundiak udaren hasieran Donostia 2016 Kultura Hiriburu gisa bistaratzeko kanpainarekin bat egin zuen. Horretarako, Gipuzkoa plazako aurrealde nagusian olana batzuk jarri zituen. Kanpaina hori Koldo Mitxelena foru-aldundiko eraikinerazabaldutuzen abuztuaren amaieran.

Era berean, jarduera horrez gain (Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia 2016 proiektuari laguntza emateko konpromisoaren baitan dago), jarduneko diputatu nagusiak, Denis Itxasok, eta Aldundiko bozeramaileak, Imanol Lasak, Donostiako Udalak Aste Nagusia dela eta antolatutako jai ofizialean hartu dute parte. Horren bidez, Foru Aldundiak Donostia 2016arekiko duen konpromisoa berretsi eta "aukera historikotzat" jo dute.

Informazio gehiago:

http://www.gipuzkoa.eus/es/aktualitatea/berriak/berri-xehetasun-/journal_content/56_INSTANCE_a23dxaTNqV38/10180/1551149/32195

<http://dss2016.eu>



> Akitania-Euskadi Interclustering-eko 3. edizioa egin dute

Uztailaren hasieran egin zuten Hendaian Akitania-Euskadi Interclustering-eko hirugarren edizioa. Ekimena Biharteanek (Gipuzkoa-Mugaz gaindiko Ganbera) eta Orkestrak (Lehiakortasuneko Euskal Institutua) antolatu zuten Akitania-Euskadi Euroeskualdearen babesarekin. Ekimenaren helburua osagarritasunak bilatzea, mugako bi aldeetako partner edo bazkideak harremanetan jartzea eta elkarren arteko proiektuak bultzatzea da.

Jardunaldiaren helburua nazioartekotzearen eta berrikuntzaren arloetan mugaz bestaldeko lankidetzaz izateko aukera-nitxo izan daitezkeenak detektatzea da. Hasieran, “Akitania-Euskadi mugaz bestaldeko guneko sektore mailako errealitatea eta bilakaera” txosteneko emaitzak eta edizioaren oinarri ziren bi esparruen inguruko lankidetzarako aukeren azterketa aurkeztu zituzten: I+G+b arloa eta nazioartekotzea.

Jardunaldia amaitzeko, bi lan-saio egin zituzten: lehenengoa nekazaritzako elikagaiei eta osasunari buruzkoa, eta bigarrena lurralde komunean dauden materialetatik abiatuta, euroeskualdeko “materioteka” sortzeko aukerari buruzkoa. Saioan lortutako ondorioak udazkenean egingo den interclusteringeko hurrengo jardunaldian landuko dituzte.

Informazio gehiago:

<http://www.orkestra.deusto.es/es/actualidad/noticias-eventos/noticias/123-retos-oportunidades-clusters-transfronterizos-aquitania-euskadi>



> 2014-2020 aldiko kostu sinplifikatuetarako aukerei buruzko hedapen-jardunaldia

Uztailaren 2an egin zuten Gasteizen “2014-2020 EGIF Euskadiko Programa Operatiboan Kostu Sinplifikatuetarako Aukerak” izeneko jardunaldia. Ekimena Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzak antolatu zuen.

Europako Gizarte Funtsaren Administrazio Unitateko, eta Eusko Jaurlaritzaren Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzako eta Kontrol Ekonomikoaren Bulegoko ordezkariak zuzendutako jardunaldian Europako Gizarte Funtsaren Programa Operatiboa Euskadin bideratzen parte hartzen duten erakunde eta elkarte ugarietako 100 pertsona inguru bildu ziren.

Kostu sinplifikatuen erabilera diruz lagun daitezkeen kostuak produktuetan, emaitzetan edo beste kostu batzuetan oinarritutako alde zehaztutako metodoaren arabera kalkulatzeari deitzen zaio. Hori dela eta, orain ez da beharrezkoa justifikazio-dokumentuetan baterako finantzaketako gastuko euro bakoitzaren jarraipena egitea: kostu sinplifikatuetan oinarritzako gakoa da hori, administrazioari karga nabarmen arintzen baitu.

Kostu sinplifikatuen erabilerari esker, gainera, Egitura Funtsen kudeaketak biltzen dituen administrazioari ahalegina eta giza baliabideak helburu politikoak lortzera gehiago bidera daitezke, finantzaketako dokumentuak biltzen eta egiaztatzen denbora eman beharrean. Horrez gain, kostu sinplifikatuek onuradun txikiak funtsetara sarbidea izatea errazten dute kudeaketa-prozesuaren sinplifikazioari esker.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/thefunds/fin_inst/pdf/simpl_cost_es.pdf



> REDVERT proiektua aurkezteko jardunaldia egin zuten

Euskal Eurohiria garatzeko mugaz bestaldeko agentziak antolatuta, uztailaren 9an REDVERT proiektua aurkezteko jardunaldia egin zuten Irunen. Jardunaldiak ingurumenaz eta lurraldearen antolaketaz arduratzen diren mugaz bestaldeko lurraldeko ehun eragile inguru bildu du proiektuko emaitzak lantzeko.

Miguel Angel Crespok, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako zuzendari nagusi eta Euskal Eurohirian Aldundiaren ordezkariak, jardunaldian parte hartu zuen. Bertan, REDVERT proiektua honako arrazoi hauek direla eta Europako ardura nagusietako bat dela azpimarratu zuen: mugaz bestaldeko izaera du eta gaur egun bereziki mehatxupean dagoen bioaniztasuna babesteko helburua du.

Mugako bi aldeetako politikariek, langile teknikoek, adituek, elkarteek eta ikasle gazteek Euskal Eurohiriko korridore ekologikoen ikerketa kartografikoko emaitzen eta Euskal Eurohiriko balioaniztasuna zaintzeko eta balioa emateko ardatz estrategikoen eta ekintza operatiboen proposamenen inguruan eztabaidatu dute.

Informazio gehiago:

<http://redvert.net/es/jornada-redvert-9-07-15/>



KOHESIO-POLITIKA

> Zabalik dago elkarteei zuzendutako Euskadiko Gazte Enpleguaren Programa Operatiboan parte hartzeko deialdia

Eusko Jurlaritzak 2014-2020 Gazteen Enpleguaren Programa Operatiboaren baitako Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketarako sarbidea bultzatu zuen. Testuinguru horren baitan, Eusko Jurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak deialdi berria egin du Euskadiko elkarteek 2014-2020 Gazteen Enpleguko Programa Operatiboaren parte autonomikoan norgehiagokan parte har dezaten.

Gazteen Enpleguaren Programa Operatiboa da Espainiako estatuan Gazteen Enpleguaren Ekimena ezartzeko tresna nagusia. Gazteen Berme-sistemak jartzen ditu abian gazteen arteko langabezia handiari aurre egiteko asmoz eta, zehazki, lanik egiten ez dutenei, ikasten ez dutenei eta prestakuntzarik egiten ez dutenei zuzenduta.

Eusko Jurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak abian jarri duen deialdiak finkatu ditu Europako Gizarte Funtsaren elkarrekiko finantzaketa lortzeko Euskadiko elkarteak eta proposamenak baloratzeko irizpideak eta partaidetzarako baldintzak 2014-2020 Gazteen Enpleguko Programa Operatiboaren bidez.

Deialdiko araudiaren arabera, baterako finantzaketaren onuradun izan daitezke honako hauek: foru-aldundiak eta foru mailako sektore publikoa, EAeko udalak eta tokiko sektore publikoko erakundeak, sektore publikoko erakundeak, tokiko edo eskualde mailako garapen-agentziak eta haietako kide diren erakundeak, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak edo EAEn egoitza edo ordezkaritza duten erakundeak, haien merkataritza-jarduera helburu sozial baten mende badago batez ere.

Hauta daitezkeen jarduerak enplegua bultzatzera eta lan-mugigarritasuna erraztera bideratutako helburu tematikora bideratu beharko dira (O.T.8) Programa Operatiboko 1. ardatzaren arabera. Zehatzago esanda, inbertsio-lehentasunaren arabera izan beharko dute (8.2): lan-merkatuan gazteen txertatze iraunkorra eta, zehazkiago, enplegurik gabe daudenena eta ikasten edo prestakuntza jasotzen ari ez direnena. Horren barruan egongo dira gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenak eta baztertutako komunitateetako gazteak. Horretarako, Gazteen Bermea ezarri da.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2015eko irailaren 30ean amaituko da.

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/r01hProxyWar/r01hProxy_wl11_inter_boletin_apps1/bopv2/datos/2015/09/1503696a.pdf



> Europako Batzordeak udalei eta aldundiei 1.500 milioi zuzenduko dituen Hazkunde Iraunkorrerako Eskualde anitzeko Programa Operatiboa onartu du

Europako Batzordeak oniritzia eman dio 2014-2020 Hazkunde Iraunkorreko EGEF Programa Operatiboari. 5.520 milioiko kontu-saila izango duen estatu mailako programa hori Europako Gizarte eta Inbertsio Funtsekin babestutako programen baitan dago eta Espainiak, hurrengo zazpi urteotan, 38.000 milioi euro jasoko ditu.

Programaren helburu nagusia estatuan hazkunde ekonomikoa bermatzea da. Aldi berean, hazkunde horrek iraunkorra izan beharko du baliabideak modu eragingarriagoan, berdeagoan eta lehiakorragoan erabiltzen dituen ekonomia bultzatuta. Esparru geografikoa lurralde nazional osoa da, baina eragin handiagoa izango du garapen maila txikieneko eskualdeetan eta trantsizio-bidean daudenetan. Laguntzaren bi heren pilatu da horietan.

5.520 milioi euroko guztizko kontu-sail horretatik, 1.500 milioi euro tokiko administraziorako eta aldundietarako erreserbatu da. Zehazki, 1.000 milioiko zenbatekoa 20.000 biztanle baino gehiagoko biztanleriak biltzen dituzten udalen elkarte funtzionalen edo udalen hiri-garapen integratuko eta iraunkorreko estrategiak beste batzuekin batera finantzatzera bideratuko da. Gainerako 500 milioiko zenbatekoa karbono baxuko ekonomia-proiektuetara bideratuko da 20.000 biztanle baino gutxiagoko tokiko erakundeetan.

20.000 biztanle baino gutxiagoko udaletarako (probintzia mailako aldundiek horietara jotzeko aukera izango dute) karbono baxuko ekonomiako proiektu berezien kasuan, laguntzen deialdiak eta kudeaketa Energiaren Estatuko Idazkaritzaren mende dagoen Energiaren Aurrezki eta Dibertsifikaziorako (IDAE, gaztelaniaz) institutuak egingo ditu.

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa lanean ari da EGEF laguntza horien deialdiko aginduak lehenbailehen argitaratzeko.

Informazio gehiago:

http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/dgfc/es-ES/ipr/fcp1420/p/Prog_Op_Plurirregionales/Documents/PO_Cre_Sost+Dec.pdf



> **AGRIPIR proiektua RegioStars 2015 sarietako finalista**

AGRIPIR proiektua, EGEF funtsen bidez Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde mailako Lankidetzeta Programak (POCTEFA) finantzatu duena, hautatu dute RegioStars 2015 sariak eskuratzeko finalista "Garapen Adimentsua" izeneko kategorian.

AGRIPIRen helburua (2007-2013 aldirako) mugaz haraindiko integrazioa eta lurraldeen garapen ekonomikoa sendotzea da "Pirinioetan mendiko nekazaritza birbaloratzeko trukerako eta esperimenezko sarea" sortuta eta sustatuta. Ekimena mugaren bi aldeetako hamahiru bazkidek elkarrekin egindako lanaren ondorioa da. Bazkide horien artean, besteak beste, honako hauek daude: erakunde publiko eta pribatuak, ikerketa-zentroak eta unibertsitateak, garapen-eragileak eta ETEak.

RegioStars sariak Europako Batzordeak sortu zituen 2008an eta Europar Batasuneko kohesio-politikaren baitan garatutako Europako proiektu berritzaile eta inspiratzaileenak aitortzen ditu.

Epaimahaiak lehiaketako lau ardatzen inguruan aurtengo edizioan aurkeztutako 143 proiektutatik 17 hautatu ditu dagoeneko: garapen adimentsua, garapen iraunkorra, garapen inklusiboa eta CityStar. AGRIPIR da lehiaketa honen historian finalista izatea lortu duen lehen POCTEFA proiektua.

Sari-banaketa Bruselan egingo da urriaren 13an Europako Eskualdeen eta Hirien Astearen baitan: Open Days 2015 izenekoetan

Informazio gehiago:

<http://www.agripir.com>



> Eskualdeen eta Hirien Europako Asteko (Open Days) 13. edizioa urriaren erdialdean egingo da

Eskualdeen eta Hirien Europako 13. astea urriaren 12tik 15era bitartean egingo da. Aurtengo lelo orokorrarekin bat eginda (“Europako eskualdeak eta udalerrriak, hazkundearen eta inbertsioaren alde batuta”), programa hiru arlo tematikoren inguruan egituratuko da: Europa modernizatzea; enpresa-jarduerara irekita dauden eskualdeak; tokiak eta espazioak.

Bruselan egingo den OPEN DAYS ekimenean, irekiera-saioa egingo dute eta, ondoren, laneko 100 saio inguru antolatu dituzte.

Orain arte, 30 herrialdetako 177 eskualdek eta hirik baieztatu dute parte hartuko dutela; horiek eskualde mailako 21 elkartetan, Europako Batzordeko 11 zuzendaritza orokorretan, sareetan, elkarteetan eta erakunde mailako beste bazkide batzuetan multzokatuta hartuko dute parte.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/opendays/od2015/index.cfm



> 17 proiektuk jasoko dute Akitania-Euskadi 2015 deialdiko laguntza

Akitania-Euskadi Euroeskualdeko Batzorde Betearazleak ebatzi du Akitania-Euskadi 2015eko deialdiaren baitan aukeratutako proiektuen zerrenda. Horren aurrekontua 250.000 €-koa da. Guztira, kulturara, hezkuntzara, kirolera, gazteriara, euskarara, eleaniztasunera eta lanbide-heziketara zuzendutako aurtengo edizioan 17 proiektu onartu dituzte.

Kulturaren esparruan, proiektuen hautaketari esker, dantzaren inguruko lankidetzak sendotu eta bultzatu ahal izango dira. Gainera, Donostia 2016 ekimenaren inguruan sortutako dinamikan murgiltzea ahalbidetuko du. Euroeskualdeko hizkuntzen erabilera eta ikasketa bultzatzeko hainbat ekimen ere babestuko dute (hizkuntza mailako trukeak, prestakuntza, tailerrak eta mintegiak eta abar). Bestalde, lehentasuna eman diote gazteen mugigarritasunari eta, horretarako, lizeoen, ikasleen, prestakuntzan dauden gazteen eta abarren arteko truke-proiektuak jarriko dituzte abian. Mugaz gaindiko kirola ere hautatutako gaietako bat da, hurren kirola bultzatzearekin lotuta.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu>



> **POCTEFA 2014-2020: Programaren deialdiaren irekiera eta aurkezpen ofiziala**

Irailaren 10ean ireki dute POCTEFA 2014-2020, V-A Espainia-Frantzia-Andorra Interreg Lurralde mailako Lankidetzeta Programa berriaren lehen deialdia. Hautagaiek bi hilabete izango dituzte proiektuko hautagaitzak bidaltzeko. Deialdiko dokumentazioa Programaren web-atarian dago eskuragarri.

POCTEFA 2014-2020 mugaz haraindiko lankidetzarako Europako programa da. Espainia, Frantzia eta Andorra arteko mugaz haraindiko lurraldearen garapen iraunkorra bultzatzeko sortu zen.

Programak, beste batzuekin batera, Pirinioetako bi aldeetako eragileek diseinatutako eta kudeatutako mugaz haraindiko lankidetzeta-proiektuak finantzatzen ditu. Horretarako, Eskualdeko Garapenaren Europako Funtzaren bidez (EGEF) Europar Batasunak Programari esleitutako 189 milioi euroko kontu-saila du.

Bestalde, 2015eko irailaren 29an POCTEFA 2014-2020 ezagutarazteko mintegia egingo dute Zaragozan. Mintegiari esker, programaren ardatz eta helburuak aurkeztuko dituzte 2014-2020 programazio-aldi berrirako eta aukeratutako proiektuei buruzko finantza-gaiak landuko dituzte.

Aurkezpen horren baitan, Programako 5 ardatzekiko lotura zuzena duten 5 mintegi tematiko egingo dituzte. Bestalde, jardunbide egokien adibideak ezagutarazi eta proiektu bihur daitezkeenetako bazkideen arteko harremana erraztuko dute.

Informazio gehiago:

<http://www.poctefa.eu/arboll/index.jsp?id=165a1c8e-9700-4155-952d-4bcf9fd37fa7>

<http://www.seminariopoctefa2014-2020.eu/>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Euskadik bere gain hartu du VANGUARD Sareko presidentetza

Euskadik hartu zuen VANGUARD Sareko presidentetza uztailan. Politika industrialak zuzentzen dituzten Europar Batasuneko 20 eskualdek osatzen dute sarea. Ekimenak Europa mailako lankidetzarako modu berria biltzen du. Baliabideak mobilizatzeko eta lerrokatzeko modu berriak proposatzen ditu eskualde mailako espezializazio adimentsuko printzipioak eta klusterretan finkatutako eskualdearteko lankidetzara oinarri hartuta. Euskadik Sare horretan duen presentzia Eusko Jaurlaritzako irizpideak klusterren politika eskualdeko estrategiaren arabera (RIS3) lerrokatzeko Europar Batasunak abian jarri duen estrategiarekin bat egin duten unean gertatu da hain zuzen ere. Horri esker, gure ekonomiaren produkzio mailako eraldaketa lortu nahi da lehia mailako abantaila berriak eraikitzeko, horren bidez epe ertainera eta luzerako enplegua eta ongizatea sortzeko asmoz.

VANGUARD Sarearen beste helburuetako bat EBren berrikuntzaren alde modu koordinatuan lan egiteko borondate politikoa dagoen eskualdeekin ezarritako eskualdearteko sarearen efektuaz baliatuta kluster industrialen nazioartekotzea bultzatzea da. Eskualde horiek RIS3a dela eta identifikatutako mundu mailako potentziala duten klusterrak nazioartekotzeko konpromisoa hartu dute beren gain.

Informazio gehiago:

<http://www.s3vanguardinitiative.eu/>



> **INTERLEHIAN, ETE-ek nazioarteko lizitazioetan parte hartzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programa**

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak Euskadiko ETE-en nazioartekotzea bultzatzeko programa berria jarri du abian: INTERLEHIAN. Programaren zenbatekoa 300.000 eurokoa da eta helburua Euskadiko enpresa txiki eta ertainek nazioarteko lizitazio-programetan parte har dezaten laguntza ematea da.

INTERLEHIAN programaren xedea ETE-ek nazioarteko deialdietan eta erakunde aldeaniztunetako lehiaketa-lizitazioetan lehiatzeko dituzten mugak eta zailtasunak (produkzio mailako gaitasunagatik, izapidetzeetarako egitura falta zaielako eta abarregatik) arintzea da.

Zehazki esanda, programaren helburua EAEn helbidea duten enpresen nazioartekotzea bultzatzea da 2015ean egingo diren eta Espainiako estatuan kokatuta ez dagoen erakunde batek deitutako nazioarteko lizitazioetan izandako partaidetzaren bidez (banaka zein lankidetzan).

Eskaerak aurkezteko epea irekita dago eta 2015eko urriaren 30eko 12:00etan amaituko da.

Informazio gehiago:

http://www.zuzenean.euskadi.eus/diru_laguntza/2015/interlehian/s68-contay/eu/



> Europa 2020 Estrategiaren adierazleen eguneraketa berria aurkeztu dute

Eurostatek, Europako Batzordearen estatistika-bulegoak, Europa 2020 Estrategiaren adierazleen jarraipen-txostenari dagokion edizio berria kaleratu du. Argitalpenak Europako Estatistika Sistemak ekoiztiko eta Eurostatek hedatutako estatistika ofizialak aurkezten ditu. 2015eko edizio eguneratuak 2002 eta 2008 arteko aldia biltzen du datuak eskuragarri dauden azken urtera arte (2012 edo 2013).

Egindako azterketaren oinarriak Europa 2020 Estrategiaren adierazle nagusiak dira, baina gizarteko azpitaldeetan edo azpiko joerak erakusten dituzten gaitan oinarritutako beste adierazle batzuk ere biltzen ditu. Horiek guztiek azterketa sakontzen eta Europako bilakaerarekin eta Europa 2020 Estrategian mahaigaineratutako helburuak betetzearekin lotutako egoera zabalagoa aurkezten laguntzen dute.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/eurostat/documents/3217494/6655013/KS-EZ-14-001-EN-N.pdf/a5452f6e-8190-4f30-8996-41b1306f7367>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Euskadik 30 urte Europar Batasunean (Estrategia Empresarial aldizkaria)

Estrategia Empresarial aldizkariak Europako gaurkotasunari buruzko "Europa" koadernoan argitaratutako artikulua. Argitalpen horretan, gainera, azken 30 urteotan Euskadin Kohesio Politikatik jasotako funtsetako 4.100 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoaren bilakaera biltzen duen panoramika eskaini dute. Zenbateko horri esker, arlo hauetan aurrerapen handiak egin dira: garraio- eta energia-azpiegiturak, ingurumena, modernizazioa eta enpresa-lehiakortasuna, eta gizarte-kohesioa, besteak beste.

Informazio gehiago:

<http://www.estrategia.net/estrategia/Uni%C3%B3n%20Europea/tabid/670/ItemID/53587/View/Details/Default.aspx>

> Interreg 25 years (Interact News aldizkaria)

INTERREGEN 25. urteurrena dela eta argitaratutako Interact-en aldizkari berezia. INTERREG Europako Batzordearen eskualde mailako garapen-finantzaketarako tresna da. Bertan, programaren ibilbidea ageri da horren inguruko gertakari eta lorpen nagusiak zehaztuta.

Informazio gehiago:

http://admin.interact-eu.net/downloads/9476/INTERACT_Newsletter_Summer_2015.pdf



> Europa digital bihurtu da (Panorama aldizkaria, 53. alea)

DG Regiok argitaratzen duen Panorama aldizkariako udako edizioak INTERREG programaren 25. urteurrena ospatu nahi izan du arrakasta gehieneko 20 proiektuen laborpenarekin. Era berean, urteurrenarekin lotutako ekitaldien egutegia eta Iskra Mihaylova-ri (Europako Parlamentuko diputatua eta Europako Parlamentuko REGI batzordeko presidentea) egindako elkarrizketa ere biltzen ditu aleak.

Bestalde, kohesio-politikak Merkatu Digital Bakarra (duela gutxi iragarri dute) eraikitzeko blokeak finantzatzen laguntzeari buruzko artikuluak ere jasotzen ditu honako hauekin lotuta: banda zabalaren konektagarritasuna eta datu irekien eta administrazio elektronikoko datuen zerbitzuak.

Aldizkariak bi elkarrizketa biltzen ditu: Norland Septentrional-eko presidenteari eta Galiziako presidenteari egindakoak. Horieta, eskualde horiek kohesio-politikarekin lotuta izandako esperientziak lantzen dituzte. "Con su propia voz" (beren iritziarekin) atalean, kontinente osoko sei eskualderen ekarpenak daude irakurgai. EB osoko proiektu esanguratsuenen eta prentsako artikulu berrien ohiko aukeraketa ere jasotzen du aldizkariak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag53/mag53_es.pdf

> Euskadi EB-28an (Eustat)

Euskadiren eta 28 estatuen Europar Batasunaren arteko alderaketako adierazleak jasotzen dituen datu-basearen aldizkako eguneraketa. Oraingoan, eguneratutako adierazleak gai hauen ingurukoak dira: biztanleria, lurraldea eta gizartea.

Informazio gehiago:

http://eustat.eus/estadisticas/tema_394/opt_0/tipo_1/temas.html#axzz3kacpiUn7



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Erakundeek Euskadiko 2014-2020 Gazteen Enplegurako Programa Operatiboan parte har dezaten deialdia**
- **HERCULE III - "Iruzurraren aurkako prestakuntza" laguntza teknikoko proposamenen deialdia**
- **EBko laguntzarako boluntariotza-ekimena: EBko laguntzarako boluntarioen hedapena. Profesional gazteentzako apendiz-postuak eta erakunde gauzatzaileentzako laguntza teknikoaren edo gaitasunen garapena biltzen ditu**
- **ERC Starting Grants. Proposamenen deialdia (ERC-2016-STG)**
- **Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sustapena. VP/2015/013 proposamenen deialdiak**
- **Gizarte-zerbitzuen erreformetarako eta laguntza emateko politika sozialetako berrikuntza-proposamenen deialdia (Enplegu eta Gizarte Gaietarako W3 ZN 2015/08/18)**
- **Eskualdeko Garapeneko Europako Funtsaren laguntzen deialdia administrazio elektronikoko eta herritarrak sarean izeneko jarduerak elkarrekin finantzatzeko 2007-2013 aldian (BOE 191/9016, 2015/08/11)**
- **Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sustapena. Ezinduen eskubideen esparruan lan egiten duten Europa mailako sare aktiboentzat irekita dauden 2016rako funtzionamenduko diru-laguntzak (Enplegu eta Gizarte Gaietarako W3 ZN 2015/08/10)**